

dalako ' beste otseiñ bati (*Erropaili*) leporatuko dautsa arazo au. Erropail ma'sua dagon gelarantz doia.)

- Man.* Arrantzalien kanta kantazazu poliki poliki.  
*Dur.* ¿Luzet'sua ezta?  
*Alk.* (*Durangarrari*) Donato: orrenbezte orrenbezte....  
Eztirudik aitan semea.  
*Dur.* Al dodana egiteko emen nago ni.  
*Man.* Gizona: asi asi *ume eder bat*.  
*Dur.* Ori entzunegidša da.  
*Man.* Kantatu orduan *Tšarmangarria zera*.  
*Dur.* Ori eztakiñ ondo.  
*Man.* ¿*Agur nere biotzeko*, ezaldakizu?  
*Dur.* Ori bai, baiña arridšak be buruz dakidše.  
*Man.* Luzet'soa izanagatik *Arrantzaliena* kantatu lezake.  
*Alk.* Ori ori. Geuk bere zetan edo atan lagun egingo dogu.  
(*Gela tšikidšan agertu bei Erropail, da mai'suari esan beidšo.*)

*Erropaillek.* Afuera pa salir dise Anton.

*Maiš.* (*Botellia besapian eskutata.*) Saldremos. (*Bidšok kanpora.*)

## 6.<sup>o</sup> AGERRALDIDŠA

Gela tšikidšan iñor be ez, andidšan lenguak

### ARRANTZALIAN EREZIDŠA

- Guztidšak.* Betorkigu kantatšu bat  
bidšotz pozgarridša.  
*Durangarrak.* Arrantzalia gora  
(*Bakarrik.*) Dšaunan iženian,  
(*Guztidšakaz.*) guztidšok ariñ ariñ  
batu kai-ganian.